

JAKINARAZPENA: DEIALDIA IREKITZEA

Honen bidez, jakinarazten dugu Leioako Enpresen Udal Bizitegiko moduluak esleitzeko eskabideak aurkezteko epea zabaldu dela.

Bizitegia Ibaiondo plazan dago, 1. zenbakian, 107. bulegoa, eta adjudikaziodun enpresei laguntzeko eginda dago. Bizitegiko moduluak aldi baterako zainpeko esleipenaren bidez utziko dira.

Horrela, adjudikaziodun enpresek honako hau izango dute eskuragai:

- Esleitutako modulua edo moduluak.
- Erabilera anitzerako aretoa.
- Negozioari laguntzeko zerbitzu gehigarriak.

Esleipena bi urtetarako izango da hasiera baten, alokairuan, erosteko aukerarik gabe. Hala ere, adjudikaziodun enpresak epea, gehienez, urte betez luzatzea eska dezake, esleipenaren azken bi hilabeteetan zehar.

Eskabideak aurkezteko epea 2014ko otsailaren 28ko 15:00 etan amaituko da.

Esleipen prozesua eta funtzionatzeko eredu operatiboa arautzen dituzten oinarriak honako dokumentu honetan daude eskuragarri: ENPRESEN_MINTEGIA_OINARRI_ARAUTZAILEAK_ETA_EREDU_OPERATIBOA.pdf. Leioako Behargintzaren web orritik deskarga eta kontsulta daiteke.